

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 477/2015 Erabakia, irailaren 3koa, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa**

Ordenamendu juridikoak dioenaren arabera kudeatzaile publikoek erabateko arduraz aritu behar dira karguan, eta gardentasunarekin, modu inpartzialean eta objektibotasunaren jardun behar dute agintzeko eta administrazioa zuzentzeko egitekoetan, beste interes eta jarduera batzuek egiteko horiek gauzatzea oztopatzen edo baldintzatzen ez dutela bermatzeko.

Bateraezintasunen araubidea bete, Ondasunen eta Interesen Erregistroko eta Jardueren Erregistroko aitorpenak aurkeztu eta gobernu kideei eta foru sektore publikoko goi kargudunei ezarritako gainerako betebeharrak betetzeaz gainera, oraingo foru gobernu kideek, Lurralde Historikoko herritar guztien defentsa gogoan hartuta, uste dute herritarrek beraiengan jarritako konfiantzari erantzun egokia eman behar diotela eta aitzindariak izan behar direla foru sektore publikoaren printzipio etikoak sendotzeko ahaleginetan.

Horretarako ezinbestekoa da konpromiso etiko eta jokabide konpromiso jakin batzuk finkatzen dituzten arauak ezartzea, bai eta jardunerako printzipioak finkatzen dituztenak ere, portaerak nolabait bideratzeko. Nolanahi ere, printzipio horiek guztiak etika publikoaren edo zuzenbidezko estatuaren berezko arautegiaren osagaiak badira ere, onuragarria izan daiteke, batetik, kargu publikodunen baloreen funtsa zertan datzan laburbiltzea eta, bestetik, gogoraztea pertsona horiek jardun onerako kode etikoaren oinarriko printzipioak bultzatu eta errespetatu behar dituztela.

Gainera, kudeaketa publikoaren egungo ikuspegiak gomendatzen du foru sektore publikoan ari diren jokabide pertsonalak bateratzea laneko prozedura, egitura eta antolamenduan jokatzeko jarraibideekin. Hori dela eta, zintzotasuna eta gardentasuna kode deontologikoaren funtsezko baloreak direla adierazi ondoren hainbat konpromiso eta jokabide estandar ezartzen dira erakundearen xedeak lortzeko, erakunde kalitaterako printzipio gisa, eta horiez gainera herritarrekin (zerbitzu eta politika publikoen hartzaileekin) aritzeko printzipioak eta foru kargu publikoetan aritzeko printzipio etikoak eta jokabide printzipioak ere bai, ardatzean ondoko balore hauek daudela: eraginkortasuna, efizientzia, ardura, prestutasuna, soiltasuna, eta erabakiak hartzean neutraltasunarekin eta inpartzialitatearekin jokatzeko.

Azkenik, adierazi behar da kode hau ez dela adierazpen hutsala eta benetako ondorioak sortuko dituela. Izan ere, araubidea modu automatikoak aplikatzeaz gainera, norbaitek kodean ezarritako zerbait ez duela betetzen antzemanaz gero, erakunde barruko jarraipen sistema aktibatuko da eta azken bururaino eramanez gero gerta liteke dimisioa eman behar izatea edo gomendioak proposatzea.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa onartzea.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 3a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

## Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa

### Lehenengoa. Xedea

Gobernu onerako kode etiko honen xedea aplikatuko den eremu subjektiboan lan egiten duten pertsonen jokabidearen oinarritzko printzipioak eta arauak ezartzea da, foru sektore publikoaren helburuak behar bezala betetzeko eta arabarren nahiak asetzeko gardentasuna eta eraginkortasuna legez ezarritakoaz haratago eramanez eta Arabako gizartearen aurrerapen ekonomikoa, soziala eta kulturala aintzat hartuz.

Gobernu onerako kode etikoa gauzatzeak aplikatzen zaien pertsonak bete beharreko lege eta arau zehaztapenak sendotuko ditu; hain zuzen ere, pertsona horiek Kodearen printzipioak eta helburuak kontuan hartuz bete beharko dute indarreko araudia.

### Bigarrena. Aplikazio eremu subjektiboa

Gobernu onerako kode etikoan ezartzen diren jokabiderako arau etikoak ondoko hauek bete beharko dituzte: foru gobernu kideak eta Arabako Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako eta Arabako foru sektore publikoko sozietate publikoetako, fundazioetako eta partzuergoetako goi kargudunak eta gainerako zuzendaritza kargudunak.

Halaber, Kodea aurrekoei ez ezik beste pertsona batzuei ere aplikatuko zaie, hain zuzen ere Gobernu Kontseiluak (edo beraren organo eskudunak, foru sozietate publikoen kasuan) izatez eta kapitalez nagusiki pribatuak diren erakundeetako edo Merkataritza Kodeko 42. artikulua arabera hainbat administrazio publikoren edo beraien sektore publikoen kontrolpean dauden erakundeetako zuzendaritza edo administrazio karguetarako izendatzen dituenak.

### Hirugarrena. Baloreak

1. Kode honetan haxe da zintotasuna: hura bete behar duten pertsonak beti jokatzeko prestutasunarekin, inpartzialtasunarekin eta objektibotasunarekin, esparru juridikoari begirunea diotela, inoiz ere huts egin gabe.

2. Kode hau bete behar duten pertsonak gardentasunarekin jardun behar dute euren egitekoetan. Gainera, ahaleginak egingo dituzte Kodea euren erakunde eta sailetan ezartzeko, eta gobernu irekia, datuak berriro erabiltzea eta administrazio elektronikoa sustatuko dituzte.

3. Euren egitekoetan lehen aipatutako baloreen eta printzipioen arabera jardun behar dute, bai gizabanako legez, bai erakundearen izenean herritarren aurrean ari direnean, ondoko artikuluetan arautzen den bezala.

### Laugarrena. Erakunde kalitatearen printzipioak

Bigarren idatz zatian aipatzen den aplikazio eremuan aritzen diren pertsona guztien eginkizunak dira:

1. Baliabide publikoak eraginkortasunarekin eta efizientziarekin erabiltzea lortzea agindutako zerbitzu publikoaren kalitatea eta iraunkortasuna bermatzeko.

2. Egitekoetan lehentasuna ematea ikuspegi estrategikoari eta plangintzari alde aurretik prestatzeko sortuko diren arazoaren eta erronken konponbideak.

3. Euren erakundeetan eta sailek ematen dituzten zerbitzuetan sormena eta berrikuntza sustatzen dituen jardunbidea ezartzea eta bultzatzea. Jardunbide horretan ezinbestekoa izango da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

4. Foru sektore publikoa profesionalizatzen eta ondo egindako lana aintzatesten lagunduko duten karrera eta gaikuntza politikak eta programak sustatzea eta bermatzea.

5. Estrategiak, helburuak eta baliabideak ondo uztartzea erakundeen egiturako goi zuzendaritzako maila politikoaren eta zuzendaritza mailen eta maila ertainen artean, bai eta erakunde gainerako langileen artean ere.

6. Karguaren berezko egitekoetan etengabe saiatzea saileko edo unitateko prozesuen emaitzak, produktuak eta zerbitzuak hobetzen eta pertsonen lanbide gaitasunak garatzen.

#### **Bosgarrena. Herritarrekiko harremanetarako eta gobernu irekirako printzipioak**

Bigarren idatz zatian aipatzen den aplikazio eremuan aritzen diren pertsonen printzipio hauek bete behar dituzte:

1. Jokabidearen irizpide nagusia pertsonen begirunea erakustea izan behar da. Horrez gainera, herritarrek gizalegez aritu behar dira eta ezin dira sartu arerio politikoaren bizitza pribatuan.

2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu behar dute eta berdinduta jokatu behar dute egoera berean dauden pertsona guztiak, bereizkerian erori gabe.

3. Kudeaketa publikoaren ardatzean herritarrak ipini behar dituzte eta konpromisoa hartu behar dute etengabe hobetzeko herritarrei ematen zaizkien informazioa, arreta eta zerbitzuak.

4. Herritarrei lagundu behar diete euren eskumeneko zerbitzu publikoen funtzionamenduaren inguruko informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzen, legeek ezartzen dituzten mugei lotuz, eta bermatu behar dute herritarren eskaera, kexa eta erreklamazioei azkar eta eraginkortasunarekin erantzuteko mekanismoak daudela.

5. Herritarrek politika publikoaren diseinuan eta ebaluazioan parte hartzea eta laguntzea sustatu behar dute. Horretarako eskuko dituzten baliabide guztiak erabili behar dituzte, are telematikoak ere, demokrazia partizipatiboan aurrera egiteko.

6. Ondoko hauek sustatu behar dituzte: Aldundiaren langileei euren lana burutzea eta herritarrei informazioa eta zerbitzu publikoak eskuratzea errazten dieten bitartekoak (estatistikak, datu baseak, lineako gobernu atariak etab.) sortzea, bitarteko horien kalitatea hobetzea eta beraien erabilera partekatzea.

7. Administrazioa abegitsua eta adikorra izatea bultzatu behar dute, eta horretarako administrazio harremanetan erabiltzen den hizketa argia edo norahik ulertzeko modukoa izatea lortu behar dute, prozedurak erraztu eta azkartu behar dituzte, zerbitzu elektronikoak abiarazi behar dituzte eta arauak eta erregulazioak hobetu behar dituzte.

8. Herritarren datu pertsonalak babestuta egotea bermatu behar dute, eta dokumentu ofizialak behar bezala sailkatzea, erregistratzea eta artxibatzea ere bai. Horrez gainera, herritarrek foru sektore publikoaren esku dauden euren datu pertsonalak ezagutzeko eta eguneratzeko eskubidea dutela onartu behar dute.

9. Interes taldeen parte hartzea eta haiekiko harremanak sustatu behar dituzte, helburua taldeok ezagutzak eta berrikuntzak zabaltzeko politika publikoaren diseinuan esku hartzea dela. Horretarako harremanak eta elkarrizketa lehenesten dituen administrazioa bultzatu behar da, herritarrak eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturalak kontuan hartu eta zer pentsatzen duten galdetzen dietena, eta elkartegintzarako eta boluntario zibikoaren lanerako bideak errazten dituen.

10. Herritarrek euren hizkuntza eskubideak erabiltzeko modua dutela bermatu behar dute; arreta berezia ipini behar dute euskaren normalkuntzaren eta erabileraren sustapenean.

11. Kultura ondarearen eta ingurumenaren babesa bultzatu behar dute euren eskumeneko esparruan.

**Seigarrena. Printzipio etikoak eta jokabide printzipioak**

1. Bigarren idatz zatian aipatzen den aplikazio eremuan aritzen diren pertsonen ondoko printzipio etiko eta jokabide printzipio hauek aplikatu behar dituzte euren egitekoetan ari direnean.

2. Printzipio etikoak:

a) Demokraziaren baloreei eta printzipioei erabateko begirunea izatea:

- Ordenamendu juridikoa errespetatzea; Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa sustatzea; jarduna gorengo baloreen (askatasuna, justizia, berdintasuna eta askotarikotasun politikoa) eta giza eskubideen eta askatasun publikoen erabateko errespetuaren mendean jartzea.

- Euren egitekoetan indarkeriaren deslegitimazio sozial eta politikoa bultzatzea eta terrorismoaren eta denetariko indarkeria politiko, zein sozial guztien edo genero biktimen oroimena iraunaraztea.

- Sorterria, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, sexu orientazioa edo bestelako zeinahi inguruabar pertsonal, politiko edo sozial dela inor ez bereizteko moduan jokatzeko.

- Gizonezkoen eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren alde egitea eta helburu hori lortzeko eragozpen guztiak ezabatzea.

- Tolerantziarekin eta askotarikotasunaren alde jokatzeko. Horrek berekin dakar forma kultural, politiko eta sozial guztiak errespetatzea eta onartzea, giza eskubideen kontrakoak ez diren heinean eta indarkeria erabili ezean.

- Klimaren aldaketaren, ingurumenaren babesaren eta lurraldearen antolamendu arrazional eta iraunkorraren aldeko politikak sustatzea euren jardun eremuan.

b) Orientabide estrategikoaren ardatz bakarrak herritar guztien interesak eta onura izatea, eskumenak erabiltzean Lurralde Historikoarekin leial jokatzeko eta eraginkortasunaren, efizientziaren, arduraren eta neutraltasunaren printzipioak errespetatzea.

c) Objektibotasunarekin eta inpartzialtasunarekin jokatzeko legez aukera onargarri bat baino gehiago dagoenean:

- Herritar guztien interesa lehenestea beti, alde batera utzita printzipio honekin bat ez datozen interes pertsonal, familiar, korporatibo, klientelar, adiskidetasunezko eta bestelako guztiak.

- Ez laguntzea norberari edo senide edo adiskide edo ezagun bati onura ekar liezaikeen administrazio izapidea edo prozedura azkartzen ez burutzen, ez eta horrek inori kalte egin liezaikeenean ere.

- Boterea ez erabiltzea norberarentzako onurarik ez mozkinik lortzeko; batez ere ez baliatzea pribilegio informatiboek, ez araugintzako pribilegioek, ez agintean jarduteak edo karguak berekin dakartzan pribilegioek.

d) Norberaren eta erakundearen erabakien eta jarduketan erantzukizuna onartzea, legez eska litezkeenez gainera.

e) Jardun publikoaren ardatzak kudeaketaren gardentasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna izatea, bosgarren idatz zatian (herritarrekiko harremanetarako eta gobernu irekirako printzipioak) ezartzen den bezala.

f) Kargu publikoaren interesekin gatazka ekar lezaketan obligazio ekonomikorik ez hartzea, eta ondorio bereko finantza eragiketarik ez negoziatu juridikorik ez egitea.

g) Karguaz baliatuta inolako pribilegiorik ez bidegabeko onurarik ez lortzea.

h) Egitekoetan jardutean eskuratzen dituzten datuak eta informazioak isilpean eta gordean edukitzea, ez agintaldian ez kargua utzitakoan ez erabiltzea eta inori ez ematea, ez euren onurarako ez beste batzuen eraberrak, ez eta herritarren interesen kalterako ere.

### 3. Jokabide printzipioak:

a) Egitekoetan onustean aritzea, inplikaturik eta zerbitzu publikoan buru-belarri, agindutako xedeetarako baino ez, ezarritako bateraezintasun araubidea zorrotz betez.

b) Norberaren karguan eta eskumenetan aritzean, jardun publikoan zein pribatuan, ordezkatzan duten edo lanean ari diren erakundearen ospea, duintasuna eta irudia hobetzen laguntzea.

c) Esleitutako baliabide publikoak prestutasunarekin erabiltzea, eta eraginkortasunarekin eta soiltasunarekin kudeatzea; baliabideok norberaren onurarako ez erabiltzea, ez eta senideen edo hurkoen onurarako ere, eta postuari esleitutako baliabide eta ondasun publikoak zaintzea eta artatzea.

Foru sektore publikoak kargurako baliagarri jarritako ondasunak eta zerbitzuak bidegabe ez erabiltzea, eta ardurarekin kontsumitzea.

d) Inpartzialtasunaren, zintzotasunaren eta objektibotasunaren printzipioak errespetatzea, irizpide lokabeari eutsiz eta norberaren interesak alde batera utziz; alderdi politiko baten organo exekutibo edo zuzendaritza organo bateko kidea izateak ezin du eraginik izan jardunean, ez eta ezarritako egitekoak gauzatzeko lanak eragotzi ez moteldu ere. Gainera, ezin dute parte hartu erabateko objektibotasunarekin jardun ezin duten gaietan.

e) Gizarte harremanetan adeitasuna dela bide ohikoak direnak ez beste opari, mesede eta zerbitzu onuragarri guztiak errefusatzeko, eta egitekoetan neutraltasunarekin eta objektibotasunarekin jardutea eragotz litzaketan maileguak eta bestelako prestazio ekonomiko guztiak ere bai. Garrantzi instituzionala edo balio handia duten opariak foru ondareerako izango dira, otsailaren 23ko 5/1998 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren ondarearenak, ezartzen duenarekin bat etorritik.

f) Kargua dela eta esleitutako ordezkaritza eta protokolo gastuak behar bezala eta neurritz egitea. Foru sektore publiko gobernukideek eta goi kargudunek eskubidea edukiko dute zerbitzua dela eta egin behar dituzten gastu guztiak ordaintzeko, frogagiria erakutsiz gero. Ez dute edukiko kreditu txartelik horrelako gastuetarako.

Erakundearen ordezkaritza gastuak foru arau baten bidez mugatuko dira, Arabako Biltzar Nagusiek Lurralde Historikoaren aurrekontuetan ezartzen dituzten gehieneko kontsignazioak kontuan hartuz.

g) Merkataritza eta finantza harremanetan gainerako herritar guztiei aplikatzen zaizkien eskakizun eta baldintza eurak ezarriko zaizkie, eta ezin dute onartu mesede traturik ez bidegabeko onurarik.

h) Egitekoetan eta betebeharretan arduraren handiarekin aritzea, langile publikoen ereduagarri izateko moduan.

i) Langile publikoekin gizalegez, duintasunarekin eta begirunearekin jokatzeko, erakundearen helburuak zehazten eta lortzeko ahaleginetan parte hartzea, eta lan giro egokia bultzatzea.

j) Herritarrekin abegitsu jokatzeko eta aurkezten dizkioten eskaerei, idazkiei eta erreklamazioei erantzutea.

k) Erabakien eta egintzen erantzukizuna onartzea; karguari dagozkion kontrolak onartzea eta jardunak zein jardun ezak dakartzan ondorioei aurre egitea, eta erantzukizuna menpekoen gainera ez botatzea arrazoi objektiborik eduki ezean. Halaber, agintaritza eta erakunde eskudunei jakinaraztea ezagutzen dituzten irregulartasun guztiak, eta horrelakoetan haiekin lankidetzan aritzea.

l) Sarean lan egitea eta Arabako foru sektore publikoaren jardun onerako interesgarriak diren lankidetzako ekitaldi eta ataza guztietan aritzea.

**Zazpigarrena. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordea**

1. Honen bidez Arabako Lurralde Historikoko sektore publiko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordea sortzen da.

2. Batzordean ondoko hauek ariko dira:

- Funtzio publikoaren arloan eskumena duen saileko pertsona titularra, zeina Batzordeburua izango baita

- Diputatu nagusiaren Kabinetearen zuzendaritzako titularra.

- Bi pertsona, esperientzia, gaitasun eta ospe profesional frogatua daukatenak sektore publiko nahiz pribatuko erakundeen etika, zuzenbide eta gobernantzarekin zerikusia duten arloetan, zeinak Arabako Foru Aldundiak izendatuko baititu.

- Arabako Foru Aldundiko funtzionario bat idazkari jardungo da; hitz egin ahal izango du baina botorik eman ez.

3. Etika Publikoaren Batzordearen egitekoak dira:

- Oharrak, kontsultak eta iradokizunak jasotzea, eta kode honetan ezartzen dena egokitze proposamenak gauzatzea.

- Gobernu onerako kode etikoa abiarazteko behar diren ekintza eta neurri guztiak bultzatzea.

- Gobernu onerako kode etikoan behar diren aldaketak proposatzea eta Diputatuen Kontseilua bideratzea, kontuan har ditzan.

- Gobernu onerako kode etikoaren aplikazio eremuan ari diren pertsonen kontsultak ebatzea, eta haren aplikazioaren inguruan sortzen diren guztiak ere bai.

- Gobernu onerako kode etikoan ezartzen diren balore, printzipio edo jokabideak ez betetzearen inguruko kexak edo salaketak jasotzea eta behar diren izapideak eragitea, betiere, interesatuari entzunaldia emango zaiolako berme osoarekin

- Gobernu onerako kode etikoa betetzeko gomendioak ematea Kargu publikoei eta haiekin asimilatutakoei, eta sailei eta erakundeei.

- Urtean txosten bat egitea gobernu onerako kode etikoa nola betetzen den kontrolatzeko.

4. Etika Publikoaren Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez, idazkariak, batzordeburuak aginduta, deialdia egin ondoren.

5. Hala ere, behar den guztietan aparteko bilkurak egin ahal izango ditu gai bereziak edo presazkoak aztertze. Presazko kasuetan bi aukera egongo dira: ohi bezala bildu edo baliabide telematikoak erabili.

Aurrean azaldu den bezala, urtero txosten bat egingo da bigarren idatz zatian aipatzen den aplikazio eremuko pertsonen gobernu onerako kode etikoa nola betetzen duten kontrolatzeko. Txostena Diputatuen Kontseiluari aurkeztuko zaio eta bertan gomendioak egin ahal izango dira. Txosteneko gomendioak eta ondorioak jendaurrera azalduko dira.

6. Etika Publikoaren Batzordeko kideek isilpean gorde behar dituzte euren egitekoetan ezagutzen dituzten informazio guztiak, batez ere aztertzen dituzten gertaeren ingurukoak, ikerketen eta eztabaiden ingurukoak, hartzen diren erabakiei buruzkoak eta datu pertsonalak. Halaber, ezin dute egin inolako adierazpenik, ez publikorik, ez pribaturik, aurrean adierazitako guztien inguruan, ez eta Batzordea aztertzen ari den prozedurei buruz ere.

7. Prozeduretako azken erabakiak soilik jendaurreratuko dira, pertsona interesdunei jakinarazi ondoren.

8. Erakunde ordezkariak kode honetan arautzen diren inguruabarretako batean egonez gero, honela egingo da ordezipena:

- Batzordeburua ordeztu behar izanez gero, haren lekua indarreko arloen dekretuan ezartzen den lehentasunaren arabera saileko titularrak hartuko du.

- Batzordeko Administrazioaren beste ordezkari bat ordeztu behar izanez gero, haren lekua Diputatuen Kontseiluaren bidezko foru dekretuan ezartzen den foru sailetako zuzendaritzetako ordezipenen araubidearen aplikazioaren ondoriozko zuzendariak hartuko du.

#### **Zortzigarrena. Kodearen zabalkundea**

ALHAOn argitaratzeaz gainera, kode hau agerkari idatzietan zein erabilera eskuliburuetan zabalduko da, eta eskuragarri jarriko da Arabako Foru Aldundiaren web orrian (egoitza elektronikoa).

#### **Bederatzigarrena. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoari atxikitzea**

1. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publiko baterako izendatzeak berekin ekarriko du izendapenetik bertatik modu automatikoan kode honi atxikita geratzea.

2. Hala ere, Kodea aplikatzen den karguetarako hura onartu baino lehen izendatutako pertsonak hari atxikitat joko dira baldin eta Kodea ALHAOn argitaratzen denetik 15 egun pasatu baino lehen berariaz adierazten ez badute atxikitzearen kontra daudela. Kodeari ez atxikitzeak kargua kentzea ekarriko du berehala.

3. Kodeari atxikitzeak berekin dakar dimisioa eman behar izatea bertan ezartzen den zerbait ez betetzeagatik neurri hori aplikatu behar denean.